

**ASTEARTEA**

2019/11/05

7. urtea, 1.137. zenbakia

107.6 fm

[www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

## Lehiaketak azokako protagonista

XXI. Azoka Eguna izan dute Berastegin; betikoak diren lehiaketak eta berriak izan dira aurten // **2**



Indonesiako koruko partaideak saria jaso ostean. JOSU ARTUTXA

# Batavia Madrigal Singers gailendu da

Indonesiako abesbatzak lau sari eskuratu ditu, tartean sari nagusia, eta ondorioz, 2020 urtean izango den Europako Sari Nagusirako txartela lortu du; bigarren ez lortu dute Tolosako lehiaketako sari nagusia // **4-6**

## Iguaran, Mendizabal eta Mujika igaro dira finalerdietara

Arrasateko lehen saioan ariko da Mendizabal, eta Tolosan izango den hirugarren finalerdian ariko dira Iguaran eta Mujika // **3**

## Altuna Lau Eta Erdiko Txapelketaren finalean izango da

Ezkurdiaren aurka 22-20 galdu ostean Jakak ez du lortu finalerako sailkatzea; Nafarroa Arenan izango da finala azaroaren 17an // **7**

**TOLOSA**

**ONENETAN ONENA**  
**ERDI-PREZIOAREN**  
**ERDI-PREZIOAN**

Eta orain...

**LEHENGO**  
**HILA DOAN!**

**19'9€**  
/hil



euskaltel



# Sariz jositako azoka egin dute Berastegin, ohiturari jarraituz

Kultur asteari amaiera emateko igandean antolatu zuten XXI. Azoka Eguna; Aurten, lehenengo aldiz, sagar tarta lehiaketa egin eta Bizi Baratzea postua jarri zuten

**Josu Artutxa** Berastegi

Goizean zehar azokako postuetan izan zen zer ikusi, zer dastatu eta zer erosi; tartean, herriko eta herritarren produktuak izan ziren eskuragai. Aurten, gainera, Bizi Baratzeako postua jarri zuten, eta lore eta landareetan aditua den Jakoba Errekondoren bisita aprobetxatuz, zuzeneko aholkuak ematen aritu zen interesa azaldu zutenei.

Horrez gain, zenbait lehiaketa ere ospatu ziren. Hala nola, gazta lehiaketan, Maria Jesus Labaie-nek lortu zuen lehen saria eta atzetik sailkatu ziren Hipoli Lasarte, Jose Inazio Ugartemendia, Koro Artola eta Iker Ugartemendia; Postu lehiaketan, Zaldune bordako Mikel Garmendiaren lanari egin zioten aitortpena; XI. ahari, ardi, bildots lehiaketan, berriz, ahari onena, Iker Ugartemendiarena izan zen, ardi onena Axier Saizarrena eta bildots onena Jose Inazio Ugartemendiarena. Animalia ezberdinen erakusketa ere egin zuten igandean Berastegin.

Rallyko argazki onenen erakusketa ere ikusgai izan zen Azoka Egunaren barruan. Eguerdian eman zuten sari banaketaren berri: lehen saria Ixiar Zubillagarentzat izan zen, bigarrena Irati Saizarrentzat eta hirugarrena Izaro Esnaolarentzat. «Kuttuna» gaiaren inguruko argazkiak aur-



Besteak beste, sagar tarta eta gazta lehiaketak egin zituzten igandean Berastegin; Jakoba Errekondok ere aholkuak eman zituen Bizi Baratzea postuan. IRATI SAIZAR

keztu behar izan dituzte aurten-go lehiaketan.

## SAGAR TARTA, LEHEN ALDIZ

Orain arte, arroz esne lehiaketa ospatu izan da Berastegin eta aurten erreleboa hartu dio sagar tarta lehiaketak. Goizean, 11:30erako aurkeztu behar ziren

tartak azokan, eta 13:30ean eman zituzten jakitera irabazle-en izenak. Inma Artolarena izan zen sagar tarta onena; bigarren geratu zen Arantxa Saralegi; eta hirugarren postuan, berriz, Marianna Blasi.

Azokako postuak eguerdian itxi bazituzten ere, arratsaldean ere izan zen zer ospatua Berastegin. 18:00etatik aurrera, talo jatea eta gazta eta sagar tarta dastaketa egin zituzten, ardoz eta sagardoz lagunduta. Tartean, gainera, Sara Caminos eta Beñat Iturriotz herritarren musika emanaldia izan zen.



## OLATZ SALVADORREN SAIOA OREXAN

Kultur hamabostaldiari amaiera eman diote Orexan. Ostira-lean, Olatz Salvadorrek kantaldia eskainiko zuen udaletxeko ganbaran, eta larunbatean, haurrentzat zine emanaldia, txokolatada eta puzgarriak eta herri afaria izan ziren. Afalostean Irune Elizagoien eta Jone Uria trikitilariak aritu ziren eta jarraian DJ Bull aritu zen. ATARIA

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua

## IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

# Artola final-laurdenetan geratu da

Final-laurdenetako azken saioa jokatu da Azkoitian eta Beñat Gaztemulendi izan da nagusi; Ane Labakak ere finalerdietara sailkatzea lortu du

### Imanol Artola 'Felix'

Beste behin sarrerak agortu dira Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bertso-saioan. Bosgarren, eta azken, final-laurdenetako saioa izan zen Azkoitiako Baztar-txo antzokian. Bezperatik sarre-ra guztiak amaituta eta sei bertsolari oholtzan: Ane Labaka (Lasarte-Oria), Maialen Akizu (Urretxu), Ander Lizarralde (Oiartzun), Mikel Artola (Alegia), Ane Zuabiskar (Arrasate) eta Beñat Gaztelumendi (Añorga).

Beñat Gaztelumendik 475 puntu lortu zituen eta hurrengo fasean Oiartzunen kantatuko du. Añorgarra nagusi izan zen lehen bertsosalditik, azkenekora. Guztietan puntuazio altuena lortu zuen eta erregulartasun handia erakutsi zuen.

Ane Labaka izan zen Azkoitiako saiotik hurrengo fasera sailkatu zen bestea. 455 punturekin, honek ere Oiartzunen kantatuko du. Lasarte-Oriakoak maila handia eta erregulartasuna erakutsi zuen. Ariketa batean ez, beste guztietan, Gaztelumendiren antzeko puntuazioa lortu zuen eta bigarren postuan sailkatu zen.

### ARTOLA GUSTURA

Mikel Artola gustura jaitsi zen oholtzatik. Bosgarren izan zen saioan, 425 punturekin. Puntuazioarekin baino, oholztako sentazioekin geratu zen alegiarra eta orokorrean esan nahi zuena



Mikel Artola aritu zen Azkoitiko final-laurdenean. GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

esaten asmatu zuela azpimarra-tu zuen. Zortziko txikian Gaztelumendirekin egin zuen ariketan lortu zituen puntu gehien. Halere, hamarreko txikiko ariketarekin geratu zen gustuen alegiarra.

Zortziko nagusian, zortziko txikian eta hamarreko txikian oholztakideen mailan ibili zen alegiarra. Aldiz, seiko motzean poto bat egin zuen eta hor hasi ziren alegiarraren sailkatzeko aukerak bakantzen. Amaitzeko, kartzelan ere gaitik urrun xamar ibili zen.

### LAURDENETAN HOBETO

Final-zortzireneta eta final-laurdenetan eskualdeko lau ordezkari kantatu dute: Beñat

Iguaran, Haritz Mujika, Unai Mendizabal eta Mikel Artolak. Zortzireneta, laurek, beraien saioko irabazle izatea lortu zuten.

Aldiz, laurdenetan, zizurkil-darra izan da punturik gehienekin sailkatu dena eta asteasuar-rak berriz, azken saiora arte itxaron behar izan du sailkapena lortzeko. Iguaranen eta Artolaren txapelketa hemen amaitu da. Halere, lau bertsolariak gus-turago geratu dira azken saioan egin dutenarekin, final-zortzireneta eman zuten mailarekin baino. Bertsoaldi batzuetan ez asmatu arren, beste batzuetan beraiek nahi zutenetik kantatzea lortu dutela adierazi baitute laur-ek.

### BOSTETIK HIRU

Duela lau urte bezala, hiru ordezkari izango ditu Tolosaldeak finalerdietan. Oihana Iguane-errepikatuko du eta Beñat Iguaran eta Mikel Artolaren duela lau urteko lekua hartuko dute Haritz Mujikak eta Unai Mendizabalek.

Mendizabal izango da kantuan lehena, finalerdietako lehen saioan kantatuko baitu, azaroaren 17an, Arrasaten. Agin Laburu (Astigarraga), Eñaut Martikorena (Hernani), Iñaki Apalategi (Beasain), Nerea Elustondo (Legazpi) eta Unai Gaztelumendi (Añorga) izango ditu kantukide.

Bestetik, azken finalerdian, abenduaren 1ean, kantatuko dute Oihana Iguaranek eta Ha-

### FINALERDIETARA SAILKATUAK

|                    |       |
|--------------------|-------|
| Agin Laburu        | 495,0 |
| Oihana Iguaran     | 485,5 |
| Iñigo Mantzisor    | 484,0 |
| Nerea Elustondo    | 476,5 |
| Eñaut Martikorena  | 476,0 |
| Beñat Gaztelumendi | 475,0 |
| Jon Maia           | 475,0 |
| Alaia Martin       | 475,0 |
| Jokin Uranga       | 467,5 |
| Iban Urdangarin    | 467,0 |
| Amaia Iturriotz    | 463,5 |
| Unai Mendizabal    | 460,5 |
| Iñaki Apalategi    | 458,5 |
| Asier Azpiroz      | 458,5 |
| Beñat Lizaso       | 455,5 |
| Haritz Mujika      | 455,5 |
| Ane Labaka         | 455,0 |
| Unai Gaztelumendi  | 451,5 |

ritz Mujikak, Tolosan. Beñat Lizaso (Azpeitia), Iban Urdangarin (Ataun), Jokin Uranga (Azpeitia) eta Jon Maia (Zumaia) izango dira bi eskualdekoekin batera kantuan. Tarteko asteburuan, Oiartzunen izango da finalerdietako hirugarren saioa.

### HEMEZORTZITIK ZORTZI

Hiru finalerdietan hemezortzi bertsolarik kantatuko dute eta horietatik zortzik lortuko dute Illunben kantatzeko txartela. Saio bakoitzeko lehenengo hiru-ek eta puntuazio altuena lortzen duten bostek. *Ataria Irratiak* zuzenean eskainiko du Tolosan izango den finalerdia, eskualdeko bi bertsolariek parte hartuko dutena, hain zuzen.

## Puntuen premia hartzen al didazu

Iritzia  
Beñat Karrera  
Harituz

**H**ala abestu zuen Mikel Artolak hamarreko txikiko bigarren bertsoaren amaieran, eta hala gelditu zen behin saioa amaituta finalerdietara sailkatu ahal izateko.

Beñat Gaztelumendi izan zen Azkoitian lehen sailkatua. *Izarren hautsa* doinua hautatu zuen agurreko bertsoa abes-teko, eta agian bera da txapel-

ketako *izarrik* handiena. Azkoitian behintzat berak egin zuen saiorik onena, ofizio guztietan bere bikotekidea baino koska bat gainetik ari-tuz eta ondoren, bakarkako saiorik onena eginez.

Zortziko handiareakin hasi ziren lan puntuagarriak. Bertan aipagarria Ane Labakak eta Maialen Akizuk egindako lana. Telebista produktora bateko nagusien lekuan ipini zituen gai jartzaileak eta elkar-rrizketa interesgarria eskaini ziguten entzuleoi. Ane Laba-ka bigarren sailkatu zen Az-

koitian eta nabari zaio lan handia eginda ari dela txapelketa honetan, erabilitako erri-mak eta hiztegi aberatsa dira horren lekuko.

Zortziko txikiko ariketare-kin jarraitu zuen saioak final laurden guztietan bezala. Ofi-zio honetan Mikel Artolak eta Beñat Gaztelumendik eginda-ko lana izan zen bereziena. Zorteak hala erabakita pilota partida ikusi nahi duen per-sona baten paperean jarri zu-ten alegiarra eta Beñat parean jartzen zaion pertsona batene-an. Gaiarekiko gertutasun ho-

rrek kalte edo mesede egiten duen zalantza egin daiteke, baina kasu honetan biek ala biek ere asmatu eta bertsoaldi bizia bezain alaia eskaini zu-ten.

Beñat Gaztelumendi eta Ane Labakak egindakoak izan ziren kartzelakorik onenak. Gaiak *ondoezik zauden arren gaur ere lanera zoaz* zioen. Anek nagusi dirudun baten idazkari bezala abestu zuen eta prekaritatearen bidea har-tu zuen *«bi aukera soilik dauzkat; lanera edo kalera»* amai-tuz. Lehen aipatu bezala kar-

tzelako lanean hiztegi eta erri-mategi aberatsak erakutsi zi-tuen lasartearrak. Beñatek ere antzeko bidea hartu zuen, bai-na telebistan lanean hasi den bekadun baten larrutik abestu zuen. *«Zukutu arte lan egin eta; behin erretakoan bota»* esanez amaitu zuen bere saioa añorgarrak, benetan lan ona eginez eta berriro ere txapele-tik gertu ibiliko dela erakutsiz.

Aipagarria Mikel Artolak ale onak utzi zituela kartzelako-an, baina gaietik hurrunegi aritu izanak kalte egin zion puntuaketen garaian.



# Indonesiako Batavia Madrigal Singers abesbatza nagusi

Lau sari jaso ditu Indonesiako abesbatzak, horien artean 2020an Hungariako Debrecen hirian ospatuko den Europako Sari Handian parte hartzeko txartela.

**Josu Artutxa Dorronsoro**

Dozena bat herrialdeetako abesbatzek hartu dute parte asteburuan zehar luzatu den Abesbatza Lehiaketan. Ohi denez herenegun banatu zituzten sariak, eta sari nagusia Indonesiako Batavia Madrigal Singers abesbatzak eskuratu du.

Ez da koruare lehendabiziko saria, mundu mailako abesbatza lehiaketa bat baino gehiago irabazi baititu, horien artean Tolosakoa; bigarren urtez irabazi dute. Tolosako Abesbatza Lehiaketako 51. edizioan sari nagusia eskuratu dute, eta baita publikoak banatzen duena ere. Bi sari horiez gain, ganbera abesbatzen artean polifonia eta folkloreko sariak ere eskuratu ditu.

Ahots taldeei dagokienez, musika profano eta erlijiosuen modalitatean sariduna Art'n Voices (Polonia) abesbatza izan da, eta bere atzetik sailkatu dira Glier College Vocal Group (Ukrania), eta Era Vocal Group (Letonia), bakoitzak bina sari eramanez.

Esan bezala, ganbera abesbatzen artean polifonia modalitatean Batavia Madrigal Singers (Indonesia) abesbatza izan da onena, JCA National Youth Choir (Japonia) bigarren gelditu da eta Männerstimmen Basel (Suitza) hirugarren. Folklore modalitatean ere, indonesiarrak eta japoniarrak lehenak eta bigarrenak izan dira; eta hirugarren sailkatua, berriz, Letoniako PA Saulei abesbatza izan da.

## PUBLIKOAREN SARIA

Txalo zaparrada ozenenak, noski, Batavia Madrigal Singers indonesiarrek jaso dituzte. Ikuslearen bihotzetaraino heltzea lortu dute lehiaketa osoan zehar. Sari nagusiak, gainera, 2020ko Europako Sari Nagusian parte hartzeko aukera ematen die.

Pasa den urtean Batavia Madrigal Singers haur eta gazte abesbatzak Europako saria lortu zuen, eta orain helduak ohore hori lortzen saiatuko dira.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak banatzen duen euskal egile baten obraren interpretazio onenaren saria, Japoniako JCA National Youth Choir taldearentzat izan da. Aurtan, David Azurzak konposatutako *Buscando Mis Amores* obra zen abestu beharrekoa.

Indonesiarrek, lehen unetik amaieraraino, ez dute publikoa txunditzeko astirik galdu nahi izan. Beraiek izan zuten igandeko ekitaldia estreinatzeko ohorea. Dotore asko aritu ziren, Freddy Mercuryren *Don't stop me now* abesti ospetsua interpretatuz.

Amaieran, berriz, Xabier Sarasolak konposatutako eta Mikel Sarriegiren letra duen *Neguan or-bela* abestia kantatu zuten, euskaraz. Sariak jaso ondoren, gainera, bi euskal egileen esker eta zorion mezua jaso zituzten indonesiarrak.

Baina, hori gutxi ez, eta beraien herrialdeko ereserkia abestuz agurtu zuten Leidor aretoko publikoa.

Urtero moduan, *Agur Jaunak*

obra kantatu zuten aretora bertaratutako guztiek, aurtengo edizioari amaiera emateko. Bada, Asiako abesbatzak ez zuen aukera galdu nahi izan, eta esker modura, agurra itzuli nahi izan zuten, beren herrialdeko kantuarekin.

## SARIAK

### Ganbera, polifonia

**Batavia Madrigal Singers (Indonesia).** 468 puntu.

**JCA National Youth Choir (Japonia).** 458 puntu.

**Männerstimmen Basel (Suitza).** 417 puntu.

### Ganbera, folklore

**Batavia Madrigal Singers (Indonesia).** 473 puntu.

**JCA National Youth Choir (Japonia).** 467 puntu.

**Pa Saulei (Letonia).** 420 puntu.

### Ahots taldeak, musika profanoa

**Art'n Voices (Polonia).** 443 puntu.

**Glier College Vocal Group (Ukrania).** 427 puntu.

**Era Vocal Group (Letonia).** 416 puntu.

### Ahots taldeak, erlijio-musika

**Art'n Voices (Polonia).** 456 puntu.

**Glier College Vocal Group (Ukrania).** 426 puntu.

**Era Vocal Group (Letonia).** 421 puntu.

### Europako Sari Nagusia

**Batavia Madrigal Singers.**

**JCA National Youth Choir.**

**Art'n Voices.**



Indonesiako abesbatza lortutako sarietako batzuk eskuan dituztela. J.A.D.



Indiak Madrilan duen Sanjay Verma enbaxadorea, harrera ekitaldian. J.A.D.

**Euskara eta Feminismoa**

Bidegurutzea elkargune

HITZALDI ZIKLOA

GENEROA ETA HIZKUNTZEN ELKARGUNEA ERAIKITZEN

Azaroak 5, asteartea  
18:30  
Kultur Etxea  
AMEZKETA



ITZIAR GANDARIAS GOIKOETXEA

Euskaratik gaztelaniara aldibereko itzulpen zerbitzua egongo da.

ANTOLATZAILEAK



BABESLEAK



LAGUNTZAILEA



**zozketak**

Atarikideentzat **hiru sarrera pare** ditugu



**Txirri, Mirri eta Txiribiton**  
**'Xaguxarroski'**  
emanaldia ikusteko

Azaroak 9, 17:00etan,  
Leidorre aretoan.

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)



# «Nazioartean ezaguna den lehiaketa batean aritzeak estatusa ematen du»

## AVIP PRIATNAK BATAVIA MADRIGAL SINGERS-EKO ZUZENDARIA

20 emakumek eta beste hainbeste gizonak osatzen dute Indonesiako abesbatza. Lehiaketako sari nagusiaz gain, beste hiru jaso dituzte. Taldeak 23 urte bete ditu aurtan.

### J.A.D.

Prestigiosko abesbatza lehiaketan sari gehien lortu dituen Indonesiako abesbatzak indar handia erakutsi du aurtengo edizioan. Indarra. Kolorea. Bizitasuna. Eta kalitatea. 1996an sortu zen, eta egun, bere aparteko ta-

lentu musikaren, eskarmen-tuaren eta gidaritza sendoaren bitartez, Avip Priatnak zuzentzen du korua.

2017an ere irabazi zuten sari nagusia, eta aurtan abesbatza-ren palmares bikaina areagotzea lortu dute. Irribarrea aurpegitik

kendu ezinik egon zen Priatna ekitaldi guztian zehar; ez zen gutxiagorako.

### Zein da abesbatza honen sekretua?

Lana gogotik egitea da benetako sekretua, ez dago besterik. Diziplina handia eskatzen du, eta batez ere, musika maitatzea. Talde osatu bat izaten saiatzen gara, hori baita garrantzitsuena. Norbanakoen lanetik osatutako pertzepzio bakarra izatea, alegia. Kide bakoitzak bere izaera alde batera utzi behar du, eta elkarrekin gustuko duten zerbait egin.

### Hirugarren aldiz aurkeztu zarete lehiaketan. Zergatik da garrantzitsua Tolosan abesbatza, eta nola ez, irabaztea?

Guretzako lehiaketa bakoitza irakaspen bat da. Noski, nazioartean ezaguna den lehiaketa batean abesteak, eta gure kasuan, irabazteak, nolabaiteko estatusa eta garrantzia ematen digu; hazten jarraitzen laguntzen digu. Ondorioz, kalitate handiagoko abesbatza izatera hel gaitezke, eta horrela, Indonesian geroz eta handiagoa den abesbatzarako tradizioa zabaltzea lortuko dugu, beste talde batzuentzat eredu izatera iritsi arte.

Oraindik asko dugu ikasteko, batez ere, Europa ekialdeko musika klasikoari dagokionez. Lehiaketa honetan, asko zaintzen da modalitate hori, eta maila altuko interpretazioak izaten

dira. Hori dela eta, irabaztea lortuz gero, beste abesbatza batzuentzat erreferentzia bihurtzen zara, eta zuregandik ikasten dute.

### Euskal kantuak abesten ere aritu izan zarete. Zerk harritu zaituzte bertako folkloretik, eta bertako tradizioetik gehien?

Guztiz ederra da abesbatzarako euskal musika tradizionala. Letrek esanahi eta zentzu handia dute, eta moldaketak oso gustukoak ditugu Indonesian. Oso garrantzitsuak dira hemen dituzuen egileak, eta horien izenak eta jatorria ezagutzea ezinbestekoa da gure herrialdeko taldeen-tzat. Egun, Indonesiako talde askok abesten ditugu bertako egileen kantuak.

### Haurren abesbatzarekin egin moduan, Europako Sari Nagusia irabazteko gai ikusten zarete?

Helburu horrekin joango gara, eta ea zortea izaten dugun. Espero dugu hala gertatzea. [Barreak]

# «Ez da abesbatza txarrik izan, baina desberdintasunak izan dira»

## ENRIKE AZURZA EPAIMAHAI BURUA

Tolosarrak esan du aurtengo lehiaketako maila altua izan dela, eta modalitate bakoitzean besteen gainetik bi abesbatza nabarmendu direla aitortu du.

### J.A.D.

Sari banaketako atsedena dion harrapatu du ATARIA-k Enrike Azurza (Tolosa, 1967), 51. Tolosako Abesbatza Lehiaketako epaimahaiburua.

### Indonesiako taldea izan da aurtengo abesbatzarik onena. Nolako taldea iruditu zaizu?

Oso talde sendoa da Batavia Madrigal Singers. Guztia oso ondo egiten dute, eta gainera, beharrezkoa den oreka hori mantentzen dute, era guztietako abestiak kantatu ahal dituztelako. **Eta zein izan daiteke emaitza horren sekretua?** Norbanako kalitatea sekulakoa da. Eta horri, inteligentzia han-

diko zuzendaria gehitu behar zaio. Musikari handiak dira, eta beraz, ezin zaio ezaugarri negatiborik aurkitu talde honi, guztia oso ondo egiten dutelako. Agian, beste abesbatza batzuek izaten dute ahulguneren bat edo beste, baina honekin ez da hori gertatzen.

### Izan al da harritu zaituen beste abesbatza bat?

Japoniarrak ere asko gustatu zaizkit. Abesbatza gaztea da, baina elkarrekin abesten dutenean, goxotasun berezia transmititzen dute. Interpretazio bikainak egin dituzte, eta gainera, ez dira Japoniako talde batek egin ohi dituenak izan, eta ekarri dituzten moldaketak asko gustatu zaizkigu.

### Eta izan al da huts egin duen talderen bat?

Beti espero izaten da gehiago talde batzuetaz. Aurtan, agian, faltan bota dut sendoagoa izango zen abesbatza bat. Abesbatza gazte asko izan dira, eta beraz, zerbait indartsuagoa eta osatuagoa falta zen. Ez da abesbatza txarrik izan, baina desberdintasunak izan dira. Gainera, askotan konparazioetan erortzen gara, eta ezinezkoa da aurtengo edizioa iazkoarekin alderatzea. Aurtengoa oso ona izan da, baina beste mota batekoa.

### Aurtan, Asturiasetik eta Galiziatik etorri dira abesbatza gertukoenak. Zer iruditu zaizkizu?

Ezagunak ditut bi taldeak. Hala eta guztiz ere, aurtengo edizioan tentsio handia nabaritu dut bi taldeetan. Lan zoragarria egin dute biek ere. Bien programak asko gustatu zaizkit. Gazteak dira eta etorkizuna bermatuta dute. Orain lan egitea besterik ez zaie gelditzen. Kalitate handiko abesbatzak dira, baina beti esaten dugun moduan, Tolosakoa ez da nolanahiko era-

kusleihoa. Oso zaila da bertan aritzea.

### Aurtan, puntuazioari erreparaturaz, aurreko urteetakoak baino baxuagoak izan dira.

### Zer dela eta?

Oso zaila da alderaketak egitea. Kontuan izan behar da, epaimahaia urtero desberdina dela, eta beraz, ez da erraza izaten puntuazioak berdina izatea. Bi abesbatza nabarmendu dira besteen gainetik. Gero, oso ondo aritu diren abesbatzen multzo bat izan da irabazleen

atzetik. Poloniarrak, letoniarrak eta ukrainarrak ikusgarriak iruditu zaizkit. Zailtasun handiko obrak interpretatu dituzte, eta beraien herrialdeetako musika tradizionala ekarri dute guregana.

### Datorren urtean ikusiko al dugu euskal talderik hemen? Zure kasuan, 2010ean aurkeztu zinen Hodeiertz abesbatzarekin. Berriz aurkezteko moduan?

[Barreak] Orduan, hirugarren saria irabazi genuen, gainera. Urtarrilean hasi ginen guztia prestatzen, eta herriaren aurrean abestu aurretik 8 kontzertu eskaini genituen. Datorren urteko lehiaketan ea euskal talderik izango den? Ez dakit. Pentsatze hutsarekin izerditan hasten naiz.



# Jarrai dezagun lanean



**Iritzia**  
**Migel Zeberio**  
Koru eta orkestra  
zuzendaria

**U**rteroko erritualari ekin diogu berriz. Leidor antzokiaren barrunbeek irentsi gaitzaten utzi gaitaizkio; urteroko aurpegiak, aurkezpen manierak, urtebete gehiago azaltzen duen kartel gris-a, urtero berritzen den loreztapen minimala behatu eta aurre-ra, lau egunetan zehar erreferentziak galtzerainoko musika uholde parrastatik edan dugu.

Murgildu gara koruen mikrokosmos honetan, bakoitza berean baina ondokoak egiten duenari begiradarik kendu ezinda, aurrez aurre, hamaika proposamen eta musikaren bizipen desberdin. Hauetan berezienak bai-

no ezin aipa ditzaket tarte honetan.

Batavia Madrigal Singers((Indonesia), guztiengandik ikusmin handienaren eragile genituen eta hala moduko erantzuna lortu zuten ikuslegoaren begietara, bai saria lortu ere. Denei itzal egiteko gai izan dira alde handiz gainera. Inork ez bezalako zera transmititzeko gaitasunaren jabe izaten jarraitzen dute urteak pasa ahala. Diziiplina zorrotzen lan egingo dutelakoan, banakako kantari prestuak zuzendari argiaren eskuei ihoteko hari fina eskuratzen diote, emaitza goi-goi mailakoa eta sarkorra izateaz gain freskoa delarik. Bestalde eta darabilten literaturari begiratzuz, bizi dugun mundu globalizatuaren isla dira AEBen ekoizpenaren mesedetan beti ere. Muestrarako: *Don't stop me now* arrats ezaguna Mercury berak ere hobetuko ez lukeenaren bertsio dinamiko eta dantzakorra. Talde trinko, bateratu eta kontundentea.

Beste erako harribitxia; Eric Ericsonen iturri beretik edandako Robert Sund zuzendari, konpositore eta pedagogo suediar historikoaren eskuetan jardundako Tokioko JCA koru gaztea. Zuzendari-kantari harreman oso

barneratua eta zehatzaz gain, antzinagoko garaietako musikaren espresibitateari zukua atereaz maisutasuna erakutsi zuten. Tempo eta artikulazioaren arteko konbinazio magistral eta jolaskorrak landu eta kontrolatutako bolumenari oso noizbehinka askatasun emanez aldagai interesgarriak eraikitzeke gai izan den talde zoragarria.

Beste maila batean Basel-eko Männerstimmen, aspaldiko partez gizonetako gazte taldea gure begien aurrez aurre. Suitza herri alpinoarra, nahikoa gertukoa izanik, presentzia urrienetarikoa izan duen nazioetarikoa dugu eta; Arriskueta zuhur, bide labainkorregietatik galdu nahi ezta sonoritate konpaktuzko talde ederra osatzen dute. Letoniako Pa Saulei ere aurrekoen maila bertsuan, efektu txundigarrien obra modernoetxinpertak atereaz erakartzen saiatu zena ezin aipatu gabe utzi.

Ahots taldeei bi goizez ekitea egokitu zitzaizen, pairatu zutenen eztarrientzat, ez garairik aproposena alegia. Taldeen osaera berak aniztasun itzela izan du abiapuntu. Eredutzat har genezakeen gizon eta emakumez osatutako zortzikote poloniarra edo Leto-

niako emazte seikotetik abiatu edo beste muturrean Indonesia, Ukraina edo Belgikako ordezkari diren koru txikiak esparru zabal osatu zuten eta belarrientzat gutiziazko saio izan genituen.

Art, n Voices-ek (Polonia) tinbre aberats eta zabalaz baliaturik, bide oro eta ez arriskurik gabeak, jorratzeko prestutasuna dute, maila handiko musikaren bazka eskaini zigutelarik. Larunbat goiz umelean hamaseigarren mendeko musikari zor zaion malgutasuna gehienentzat ataka estu bihurtu zen baina ez beraienez: benetan distiratsu, elegantziaz, inor gutxi bezelako ulermenaz obren muinari etekina ateratzeko gai dira, inork gutxi bezelako ulermenaz musika erromantikoan ere konzentrazio handiz eta nabardurarik txikiak ere aurretik zorrotz landurik zeuzkaten; Egitarau osoaren aukeraketa anitza eta arrisku erakargarri zosia. Autonomia harri-garriz funtzionatzen dute norbanakoak eta aldi berean elkar arteko lanean, zentzuak fintasunean garatuak, armonia ororen aurrean zein esaldi arteko joske-  
ra ezberdinetan.

Letoniako Era-ri tarte ederrak jaso genizkion: estetika bateratuaz eta ahotsen amalgama eta armoniko aberatsarekin lortutako etorri erraza, plazerezko Dowland, zein erromantizismoa: kan-

ta desberdinen artean batasuna lortzeko gaitasuna baina aldi berean giro eta garai desberdinetara moldatzeko ere. R Zalupe-k Carol ezagun baten gainean sorturiko kanpai hotsezko doinua ekarri digute besteren artean.

Guer College Ukrainiar neskak, Galina Gorbatenkoren maisutasunari men eginez izpirituz asetako kontzeptu klasikoa eta ongi atondua lortu dute. Beren jardunaz aipatu gabe ezin utzi musika asko dutela zainean. Emisio ilun bereizgarriaren gainean Brahams boteretsu eta maisutasunez ekarria, doinu sarkorrrak eta tradizio Ortodoxozko otoitzek atsegin egiten dute oso.

Gema Sangkakala, Indonesia-  
rrak gaztetasunaren freskuran, espero gabeen bi obra euskaldun goxoki landuak Elberdinen Sole-  
ram, XX.ko erdialdeko Broadway eran jaso eta Ikimilikiliklikean sorturiko festa algaratsua eskaini ziguten besteren artean, tarteka afinazioarekiko borrokatxoren bat.

Guzti horri eta gehiagori jukua egiteko epaimahaikide zazpikote eskarmentuduna aritu da. Eman duten erabakiarekin gehienean bat etorri izanak ez dakit lasaitu nauen edo nire jardunean gauzak txukun xamar egiten jarraitzeko intentzioan, galtzak bete lan izaten jarraituko dudala ziurtatu didan.



**Iritzia**  
**Irati Hartsuaga**  
Abesbatza zalea

**A**urten ere etorri eta joan zaigu abesbatza lehiaketa. Berrogeita hamaikagarrena, alajaina! Honez gero jakina den bezala, Indonesiako Batavia Madrigal Singers abesbatzak jaso du sari nagusia, merezimendu osoz jaso ere, nire iritzirako. Horrez gain, bereziki aipatu nahi nuke Poloniako Art'n Voices ahots taldeak publikoarekin lortu duen konexioa. Ekarri zuten proposamena indonesiarrena bezain ikusgarria izan ez arren, magiaz betetako bide bat osatu zuen, notaz nota, entzuleen belarrietaraino. Eta ezin esan gabe utzi inoiz baino emakumezko

zuzendari gehiago ikusi ditugula taula gainean, eta bi emakume ere bazirela epaimahaian. Aurre-ra goaz eta pozgarria da hori.

Aurkezleek behin baino gehiagotan esan bezala, ezinezkoa zen iazko Championsa gainditzea. Baina ez genuke bi edizioak elkarrekin alderatzeko akatsa egin behar, iazkoa berezia eta bakarra izan zelako, eta aurtengoa ez zen haren jarraipena, baizik eta ohiko martxari berriz heltzea. Horregatik azpimarratu nahi ditut urterokoari xarma ematen dioten beste gauza batzuk, epaileek puntuak

ematean kontuan hartzen ez dituztenak eta abesbatzen erreper-  
torioetan entzuten ez direnak.

Ez daude partituretan idatzita, baina ozen entzuten dira aretoan: inoizko udazkenik beroena izanik ere, kantuen erdian eutsi ezinezko ez tul hotsak. Eta ez tul hotsaren ondoren, mentazko karamelua ahoratu nahi eta, papera kentzean saihestu ezin den kras-kras hori. Saioz saio eta oharrak ohar, itzali gabe gelditzen diren sakelako telefonoak –aurten bakarren batek lortu du mezu bat iristearen adierazgarri den soinu kantuarrekin

afinatzea. Edo musikaz gozatzen erakutsi nahian, gurasoen eskutik Leidorrera joaten diren haurrak, edertasunaren eta geldiegon ezinaren oreka arriskutsuan dantzan.

Akaso esango duzue *xarma* ez dela hitzik egokiena halakoak izendatzeko. Tira ba, jar gaitezen nostalgiko eta erromantikoago. Zer diozue kantatu bat guztiz bukatu aurretik, goizegi hasten diren txalo lotsatiez? Edo kantua hain modu delikatuak bukatu ondoren, lehen txaloak egiten ausartu aurretik sortzen diren isiltasun

magikoez? Jakin nahi nuke abesbatzek zer pentsatzen duten, hoge minutuko erreper-  
torioan zehar alaitasuna, indarra, fintasuna, sentsibiltatea eta beste hainbat emozio transmititzen saiatu ondoren, txaloak pixkanaka elkarren erritmora batzen entzuten dituztenean. Kaosa orden bilakatzen den une liluragarri horretan.

Eta balorazio musikal guztien gainetik, lehiaketako unerik hunkigarrienetako bat etortzen da bukaeran: publikoa besaulkitik altxatzen denean, eszenatoki gainean bere maila gorena eman duen taldearen aurrean zutik, eta Agur jaunak ezaguna (edo ezezaguna) kantatzen dionean, esker onez. Hurrengo urtean berriz une magiko gehiago bizitzeko itxaropenez. Edo, magikoak ez direnak ere bai, badakigulako urtebete barru berriz ere inguruan egongo dela Leidorrera ez tula kronikoarekin eta kilo bat karamelurekin joaten den hori. Ni, behintzat, zain egongo naiz.



# KIROL EMAITZAK

## Areto futbola

### BIGARREN B MAILA

#### 8. jardunaldia

Laskorain–Juv. del Circulo 3–5  
Kukuyaga Etxe.–Lauburu 2–4

#### Sailkapena

1. Auzoak de Zierbena 18p  
2. Ibararte 18p  
3. Guardo Deporcy 17p  
4. Lauburu Ibarra 17p  
5. Otxartabe 16p  
6. Tafatrans 15p  
7. Juventud del Circulo 15p  
8. San Juan 14p  
9. Laskorain 10p

#### Hurrengo jardunaldia

Castro Urdiales (11)–Laskorain (9)  
Lauburu (4)–Guardo Deporcy (3)

## Eskubaloia

### 1. MAILA NAZIONALA

#### 7. jardunaldia

Tolosa Eskubaloia–Urduliz 27–23

#### Sailkapena

1. Trapagaran 13p  
2. Uharte 12p  
3. Anaitasuna 11p  
4. Ereintza Aguaplast 9p  
5. Dominicos Zaragoza 9p  
10. Tolosa Eskubaloia 6p  
16. Alcorta Forging Group 1p

#### Hurrengo jardunaldia

Jacar San Antonio (7)  
Tolosa Eskubaloia (10)

## Futbola

### 1. MAILA NAZIONALA

#### 8. jardunaldia

Tolosa CF–Arratia 1–1

#### Sailkapena

1. San Ignacio 19p  
2. Bizkerre 19p  
3. Arratia 17p  
4. Añorga 16p  
5. Berriozar 15p  
6. Osasuna B 13p  
11. Tolosa CF 8p  
14. Itaroa Huarte 3p

#### Hurrengo jardunaldia

Añorga (4)–Tolosa CF (11)

### HIRUGARREN MAILA

#### 12. jardunaldia

Pasaia–Tolosa CF 0–2

#### Sailkapena

1. Sestao River 27p  
2. Portugalete 26p  
3. Vitoria 25p  
4. Balmaseda 21p  
5. Gernika 19p

6. Santutxu 19p  
7. Cultural de Durango 18p  
10. Tolosa CF 15p  
20. Ariznabarra 5p

#### Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (10)–Real C (18)

### ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

#### 7. jardunaldia

Intxaurdi–Tolosa CF 2–2

#### Sailkapena

1. Leintz Arizmendi 21p  
2. Tolosa CF ‘B’ 19p  
3. Urola 19p  
4. Lagun Onak 16p  
5. Añorga 16p  
6. Intxaurdi 14p

#### Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (2)–Hernani (11)

### ERREGIONAL PREFERENTEA

#### 8. jardunaldia

Idiazabal–Danena 2–1  
Tolosa CF ‘B’–Orioko 2–0  
Billabona KE–Ikasberri 4–1

#### Sailkapena

1. Beasain 19p  
2. Aloña Mendi 19p  
3. Lagun Onak 17p  
4. Ilintxa 14p  
5. Billabona KE 13p  
11. Danena 10p  
13. Tolosa CF ‘B’ 7p

#### Hurrengo jardunaldia

Danena (11)–Getariako Keta (16)  
Beasain (1)–Tolosa CF ‘B’ (13)  
Orioko (14)–Billabona KE (5)

### LEHEN ERREGIONALA

#### 8. jardunaldia

Intxurre–Euskalduna 5–0

#### Sailkapena

1. Anaitasuna 15p  
2. Usurbil 15p  
3. Intxurre 13p  
4. Euskalduna 13p

#### Hurrengo jardunaldia

Ordizia (6)–Intxurre (3)

### GORENGO MAILA

#### 7. jardunaldia

Intxurre: atsedenaldia

#### Sailkapena

1. Amaiak Bat 18p  
2. Eibar 15p  
4. Intxurre 8p

#### Hurrengo jardunaldia

Amaiak Bat (1)–Intxurre (4)

# Altuna maisuki pasa da, eta Jaka harro dago egindako txapelketaz

Altuna III.ak Ezkurdiaren aurka jokatu du Lau Eta Erdiko Txapelketaren finala Nafarroa Arenan, azaroaren 17an.

## Erredakzioa

Iazko finala errepikatuko da lehen mailako Lau eta Erdiko Txapelketan: Altuna III.a Ezkurdiaren aurka. Gutxiatik, baina Jakak ezin izan zuen irabazi eta, beraz, eskualdekoen arteko finalaren esperoan geratu beharko dugu beste urte baterako. Aurtengo finala Iruñeko Nafarroa Arenan jokatu da, azaroaren 17an.

Jokin Altunak 22-10 irabazi zion Unai Lasori Bilboko Bizkaia pilotalekuan jokatu finalaurrekoan. Orokorrean, partida ederra jokatu zuten bi pilotariek. Bi zati izan zituen. Nafarrak ikaragarri jokatu zuen lehen zatian. 5 eta 1 aurreratzea lortu zuen, eta batez ere, pilota ongi mugitzen asmatu zuen. Fisikoki ere, Altuna baino indartsuago kantxaratu zen, eta horrela mantenduko zela zirudien, baina joko horrek ez zuen jarraipenik izan. Bigarren zatia amezketarraren aldekoa izan zen. Snako berdinketatik aurrera, erabateko nagusitasuna erakutsi zuen Altunak. Beste behin ere, erakustaldi bikaina emanda amaitu zuen partida.

Amezketarra oso gustura zegoen partida amaieran: «Tentsio handiko partidak izaten dira txapelketakoak, baina azkenaldian, oso gustura ari naiz jokatzeko. Gaur ere, nahiz eta 5 eta 1 galtzen hasi, sentsazioak oso onak izaten ari ziren. Jakitun nintzen, amaierara arte dena eman behar nuela. Partida erdialdean tanto gogor batzuk izan dira, eta horiek, gainera, nire aldera erori dira». Lasok ez zion etsi hasierako erritmoari, eta horrela adierazi zuen Altunak: «Abiadura handia ematen dio pilotari. Partida erdialdera agian, fisikoki hobeto nengoen bera baino, eta hortik saiatu naiz min egiten».

23 urte besterik ez, eta profesionalek bosgarren finala jokatu du amezketarrak, laugarrena Lau Eta Erdiko Txapelketan. «Egunerokoari eman nahi diot garrantzia, baina egia da be-



Altuna, Jakaren aurka jokatu du finala Nafarroa Arenan, azaroaren 17an. J.A.



Erik Jaka, Etxeberriaren aurka Beotibarren jokatu du finala Nafarroa Arenan, azaroaren 17an. J.A.

giz jota dudala txapela», aitortu zuen amezketarrak. «Finalera iristea beti da seinale ona. Urtero sinatuko genuke elkarren aurka jokatzeko, nahiz eta asko kostatu zaidan, Josebak ez baitu tantorik galdutzat ematen».

## HIRUGARREN POSTUAREN BILA

Jakak 22-20 galdu zuen Ezkurdiaren aurka. Partida osoan ez zuen batere eroso jokatu Jakak, eta horren adierazle hutsak izan ziren: guztira, 9. Egindakoak, berriaz, 15. Kasta, orde, soberan duela erakutsi zuen, eta Ezkurdia estutu zuen partidaren amaieran. 17-7 joan zen aurretik nafarra eta tanto batera iristea lortu zuen lizartzarrek.

Partidaren amaieran Jaka gus-tura azaldu zen egindako txapelketaz: «Ni oso harro nago nire buruarekin. Txapelketa guztia kontuan hartuta, nik uste dut

partida bakarra egin dudala txarra. Nirekin ez zuen inork kontatuko, baina hemen nagoela erakutsi dut eta alde horretatik oso harro». Pena pixka bat ere azaldu zuen: «txapelketako bi pilotari onenak [Altuna eta Ezkurdia] hortxe izan ditutalako. Uste dut hasiberriaren akatsak izan ditutala. Bi partidetan xehetasun txikiak erabakitzaileak izan dira. Beraiek nik baino eskarmentu handiagoa dute, eta kantxan hori erakutsi dute une erabakigarrietan».

Jakak Lasoren aurka jokatu du hirugarren eta laugarren postua erabakitzekeko partida. Tolosako Beotibar pilotalekuan izango da, igande honetan, 17:00etan hasiko den jaialdiko bigarren neurketa. Jakak bere finalerdia eskuko minez bukatu zuen, eta ikusi beharko da iganderako prest egongo den.





**ASTEARTEA, 2019KO AZAROAK 5**  
**Argitaratzailea:**  
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Koordinatzailea:** Rebeka Calvo Gonzalez  
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizalete  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95.  
**E-posta:** ataria@ataria.eus  
**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.  
villabona-aiztondo@ataria.eus  
**Anoetalea:** 687 410 022.  
anoetalea@ataria.eus  
**Ibarralea:** 687 410 118. ibarralea@ataria.eus  
**Alegialdea:** 687 410 034.  
alegialdea@ataria.eus  
**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus  
**Bezere arreta zerbitzua:** **943 30 43 46**



www.ataria.eus

**ATARIA IRRATIA**  
**107.6 FM**

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**  
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Etxebarri, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:**



# ASTEARTEA 05

## AGENDA

### Deialdiak

**Amezketza.** Generoa eta hizkuntzen elkargunea eraikitzen. Hizlaria: Itziar Gandarias. Kultur etxean, 18:30ean.  
**Ikaztegieta.** Aranzadi zientzia elkar-tearen eskutik izarren behaketa egitekoa zen, baina eguraldiagatik bertan behera geratu da.  
**Tolosa.** EHBilduren ekitaldi politiko, zerkausian, Maddalen Iriarte eta Jon Iñarriturekin, 19:00etan.

## ATARIA IRRATIA

**09:00. Pasahitza.** Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, teknologiararen tartea, Elena Egigurenekin komunikazio ez bortitza eta amaitzeko eskualdeko musikari batek eginiko proposamen musikala.  
**12:00. Entzuteko jaioak.** Musika saioa.  
**16:00. Zebrabidea.** Magazina.  
**18:00.** Goizeko saioen onena.  
**20:00. Gure txokotik.** Elkarriketen tartea. Gaurkoan, Agurtzane Belauntzaraneekin.

## 28 KANALA

**13:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**16:30.** Elkarriketap (Oskar Alegria)

**17:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**21:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**22:15.** Leihotik begira (Orexa)  
**22:45.** 51. Tolosako Abesbatza Lehiaketa (Polifonia)  
**23:30.** Gaurkoan Tolosaldeko

## FARMAZIAK

### Gaur

**TOLOSA. Egunekoa.** Jesus M. Etxebeste Elosegi. Gernikako Arboren lorategiak, 3. 943 65 10 40.  
**TOLOSA. Gauekoa.** Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.

## EGURALDIA

### IKER IBARLUZEA

**Gaur.** Giro ez atsegin eta euritsua izango dugu, euri zaparrada mardulekin. Tenperaturak behera egingo du.

**Bihar.** Oraindik ere euritan jarraituko du. Egunaren bigarren zatian pixka bat lasaitzen hasiko zaigu, eta iluntzean ostarteak zabalduko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



## BANATU DITUGU LEHIAKETAKO SARIAK

Urtero moduan, Udako argazki Lehiaketa antolatu du ATARIAK, eta aurtengoak baditu irabazleak. Epaimahaiaren saria Juanan Dorronsorok jaso du *Begira* argazkiarengatik. Bi lagunentzako asteburu bateko egonaldia irabazi du Ispastergo (Bizkaia) Kurtzia Landetxearen eskutik. *Ataria.eus*-eko erabiltzaileen saria, bestalde, Nere Karrerak eraman du, *Flamenkoaren Isla da* argazkiarengatik. Karrerak, lau lagunentzako bazkaria jaso du Alkizako Inazio Urruzola txakolindegian. Azkenik, Tolosako Zumardia elkarteak eskainitako bi neguko eski ikastaro zozketan izan dira parte hartu duten Atarikide guztien artean eta ondorengoak izan dira zortedunak: Izarne Olano, *Euskal Herriko udak* lanagatik eta Miren Izagirre, *India. Gizonezko bat garbiketari, zapi morea esku artean* argazkiagatik. ATARIAK eskerrak eman nahi dizkie beste urte batez lehiaketan parte hartu duten guztiei. ATARIA



## ANOETA - 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK  
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



**CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.**

Informazio guztia:  
KALE BERRIA 48, BEHEA  
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo

607 445 484  
943 69 02 97